



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

(4)

LEGEBILTZARREKO MAHAIRI

Behean sinatzen dugun taldeok honako ERDIBIDEKO ZUZENKETA hau egiten diogu EH Bildu Taldeak aurkeztutako Interpelazioaren ondoriozko mozioari, 11\11\03\00\0030 espediente zenbakia duenari, Lan-istripuen gorakadaren atzean dauden egiturazko arazoak ezabatzeko Jaurlaritzak hartu beharreko neurriei buruz.

ERDIBIDEKO ZUZENKETA

1.- Legebiltzarrak uste du lan istripuak direla muturreko lan prekarizazioan oinarritzen den lan harreman desagokien eta desorekatuen azken ondorio tamalgarria, patronalak langile klasearen eta beraren ordezkari-erakundeen gainean duen botere-harremanean oinarritutako ereduaren ondorio tamalgarria. Horregatik, uste du lehentasunezkoa dela mekanismo batzuk ezartzea, zeinak ahalbidetuko dituzten lan-harreman orekatu batzuk, egun enpresen interes ekonomikoak langileen segurtasunaren gainetik duten lehentasuna saihestuko dutenak. Hori dela eta, Legebiltzarrak adierazten du lehentasunezkoa dela kalitatezko enpleguak eta lan segurtasuna sustatuko dituen Lan Harremanetarako Esparru Propioa

A LA MESA DEL PARLAMENTO

Los grupos abajo firmantes presentamos la siguiente ENMIENDA DE TRANSACCIÓN a la Moción consecuencia de interpelación del grupo EH Bildu, con número de expediente 11\11\03\00\0030, Relativa a medidas que debe tomar el Gobierno para eliminar los problemas estructurales que hay detrás del incremento de accidentes laborales.

ENMIENDA DE TRANSACCIÓN

1.- El Parlamento considera que los accidentes de trabajo son la última consecuencia lamentable de unas relaciones laborales no adecuadas y desequilibradas basadas en una precarización laboral extrema, la consecuencia lamentable de un modelo basado en una relación de poder de las patronales sobre la clase trabajadora y sus organizaciones representativas. Por ello, considera prioritario establecer mecanismos que permitan garantizar unas relaciones laborales equilibradas que eviten la actual primacía de los intereses económicos de las empresas por encima de la seguridad de las trabajadoras y trabajadores. Así, el Parlamento Vasco declara que es prioritario construir un marco propio de relaciones laborales, que impulse empleos de





eraikitzea eta Jaurlaritza horretan buru belarri inplikatzeari.

2.- Bide horretan, Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio lan segurtasunaren araubide guztia zorrotz betetzeko bai erabakitasuna bai beharrezkoak diren baliabideak gehitu ditzala, arriskuen ebaluazioen kontrol zehatza egin ahal izateko eta benetako disuasio-neurriak ezartzeko, eta, horretaz gain, enpresei ematen zaizkien diru-laguntzak araubide hori betetzearekin lotuz, legeria betetzen ez duten enpresei laguntza horiek kenduz, edota isun ekonomikoak ezarritik, besteak beste.

3.- Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio bereziki obra publikoan, baina baita administrazio publikorako lan egiten duten enpresetan ere, lan segurtasuna irmoki betearaz dezala, horietan lan baldintzen duintasuna ziurtatuz, azpikontratazio-kateak ahal den neurriak desagerraraziz, eta lan istripuak jasotzeko aukera minimoetara jaitsiz.

2017ko azaroaren 16an

EHI Bildu

calidad y promueva la seguridad laboral, y que el Gobierno Vasco se implique totalmente en ello.

2.- En esta línea, el Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que incremente tanto su determinación como los recursos necesarios para cumplir estrictamente toda la legislación de seguridad laboral, para poder realizar así un control exhaustivo de las evaluaciones de riesgos y establecer medidas disuasorias reales, vinculando además las ayudas económicas que se dan a las empresas con el cumplimiento de dicha legislación, retirando las ayudas a empresas que la incumplan, o estableciendo multas económicas, entre otros aspectos.

3.- El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, especialmente en la obra pública, así como en aquellas empresas que trabajan para la administración pública, haga cumplir estrictamente la seguridad laboral, garantizando la dignidad de las condiciones laborales, eliminando en la medida de lo posible las cadenas de contratación y reduciendo al mínimo la posibilidad de sufrir accidentes laborales.

16 de noviembre de 2017

E.P.